

EUSEBIO ERKIAGA

(1912-1993)

Egilea:
JON KORTAZAR

Montale idazle italiarrak ehuneko bostean jarri zuen bere bizitzak sor zezakeen jakinminaren portzentaia. Idazleen artean ere badira biografia agerian utzi dutenak, eta gogo erromantiko batek bultzaturik, inoiz asebeteko ez balira bezala, bizitzakaliza agortu dutenak. Baina XX. mendean badira eguneroko bizitzari atxikita bidea egin dutenak. Eguneroko ekintzak eta arruntasunak bete dute haien biografia. Garaiko literaturak horrelakorik ezagutu du. Musil, Beckett, Valéry, Svevo, Montale, Pessoa bera, biografiarik gabeko pertsonak dira, ohitura eta etengabeko eguneroko lautadan bizi izan direnak, biografia-erpinik gabe. Hala ere, biografiak garrantzirik ez badu, beren literatur lanek ahaztezinezko urratsak utzi dituzte literaturan.

Egunero-egunero letretara emana luzatu ditu bere urteak Eusebio Erkiagak. Arin eta laster esan beharko dugu ez duela aipaturiko idazleen maila lortu. Baina bere irudia eta lana ausarten eta abenturazaleen aldean edo arrunten eta lauen artean jarri behar bagenitu, ez genuke zalantzarik izango. Umiltasunez eta apaltasunez

Eusebio Erkiaga Alastra, 1912-1993.




Eusebio Erkiagak bere euskal lan oparoa eman du argitara. Inoiz “katakunben aroa” deitu izan den aldi gogorrean eman zituen bere onenak Erkiagak, naturaltasunez eta amodioz euskararen alde lan eginez.

2 Eugenio Montalek esana da, ospe nagusia lortzeko era asko daudela. Fama aipatzen zuenean, ordea, literaturan lor daitekeen ospez ari zela zehaztu zuen: txikia, eskasa, belaunaldi bakoitzean hamar zaletuen gogoak hartuko dituen, ez beste. Idazle nagusiak, ezilkorrak, klasikoen ate nagusitik sartzen omen dira ospera; beste askok, ordea, otseinen atea erabili behar dute, eta ez da faltako tximinia edo leihotik sartuko denik. Eusebio Erkiagak ere izan du bere sarbide umila eta apala. Ez da berea

ate nagusikoa izan, agian; baina, umil, txeratsu, duin lortu du zaletuen gogoia.

Hiru aldi nagusitan zabaldu da Eusebio Erkiagaren lana: gerraurrean, berrogeita hamar-hirurogei urteetan, eta, azken aldian, Autonomia lortu ondoren, literaturaren omenaldien loraldia gertatu denean. Luze-zabaleko literatur bizitza erabili du, bada, Erkiagak eta iraupena izan da bere lanbidean erabili duen ezaugarriarik sakonena.

Eusebio Erkiagaren jaiotetxea.
Kale honi bere izena jarri zaio.




Lekeitio mende hasieran.



Eusebio Erkiaga Lekeition jaio zen 1912ko irailaren lauan. Perito-ikasketak egin zituen Bilbon. Roberto Mielgok, Erkiagaren nobelagintza sakonen aztertu duen ikerlariak berriki esan duenez, ikasketak herrian bete eta “Escuela de Altos Estudios Mercantiles”-en azterketarako azaldu ohi zuen bere burua. Banketxe baten lanean hasi zen ondoren. Mielgok honela marraztu du urte horietako bizimodua:

“Erkiagaren gaztaroko bizimodua ez zen, beraz, oso berezia izan; bizimodu kristau eta euskaltzale ‘normala’ izan zuen idazle lekeitiarrak.”



Jaunartzean.

Lauxetak uda-oporrek Lekeition igarotzen zituela gauza jakina da eta bien arteko adiskidantza Errepublikara garaietan sortu zela ere. Mungiarren bide sinbolistak jarraituz, hasi zuen Erkiagak olerkigintzaren bidea. Bere poemak *Yakintza* eta *Euzkerea* aldizkarietan argitaratu zituen 1934-1936 urteen artean. Aitzolen gidaritzapean bultzaturiko Eusko Olerti Egunen mogimenduak izan zuen eraginik lekeitiarraren bidean. Baten baina gehiagotan hartu zuen parte lehiaketetan, eta 1936. urtean, Lekeition egin zen Eusko Olerti Egunean, ohorezko aipamena jaso zuen *Lora Gorriak* poemaren bidez.



Lau neba-arrebako familian hazi zen; Eufemi, Eusebio, Mari Tere eta Victor.

Eusko Olerti Egunen anaikide zen Antzerti Egunetan ere esku hartu zuen saria irabaziz II. lehiaketan, eta *Antzerti* aldizkariak argitaratu zuen bere *Antzerki jayan izan naiz* lana.

Artean kazetaritzan ari zen Erkiaga. “Edo” ezizena ezaguna bihurtu zuen *Bizkaitarra* astekarian. Jaungoiko zaleen *Ekin*-eko orrialdeek ere ezagutu zuten bere lanaren traza. *Euzkadi* egunkarian lan egin zuen, eta guda zitara sortu zeneko *Guda-otsak* saila eraman zuen aurrera. Augustin Zubikarai eta Manu Ziarsolo, *Abeletxe*-rekin batera euskara hutsean argitaratu zuten *Eguna* egunkaria.

Bilbo jausi zenean, gerraosteko ordu latza zabaldu zitzaion Erkiagari. 1950. urtean idatzi zuen *Arranegi* eleberria Domingo Agirreren *Kresala*-ren itzalpean, nahiz eta normaltasun desorekatua etorri arte zortzi urtetan argitaraturik gabe isilik eta ilunetan eduki behar izan zuen, 1958. urtean argia ikusi zuen arte. Lau urtetan, baina, hiru eleberrig argitaratu zituen Erkiagak, bere lanaren bigarren loraldiari hasiera emanez.

Gurasoak, Esteban eta Leonarda, seme-alabek inguraturik. Victor anaiak gudarien elkarteko lehendakari gisa lan handia egin zuen hil arteraino euren eskubideen alde.

Lekeitioko Mertzedarrietan egin zituen lehenengo ikasketak. Eskolakide eta irakasleekin batera dugu hemen.



Urte hauetan euskalgintzan aritu zen Erkiaga: euskarazko eskolak eman zituen Xabier Peñarekin batera, euskaltzain urgazle izendatu zuten 1952. urtean, euskaltzain oso 1963an egin zutelarik.

Ondoren berriz, nobelagintzaren isilaldia ezagutuko du berriro Erkiagak, hogeituro urteko alde iluna, hain zuzen ere. Baina literaturarako makur agertu bazitzaigun, euskaltzalea ez dago geldirik. Euskarazko eskolez eta Euskaltzaindikoa lanez gain, *Bizkaiko Bankuaren Boletina* zuzendu zuen Erkiagak.

Hona hemen Iñaki Sarriugarteren hitzetan lanaren helburua:

“Bizkaiko Bankuaren Boletina... 60-70 hamarkadetan erbestean egoan makina bat euskaldunen herriminen asegari gertatuko zan ezpairik barik. Boletin hau 1964. urtetik 1970.era bitartean argitaratu zan... Aldizkaritxu hau euskera hutsez argitaratzen zan, zuzendaria E. Erkiaga zalarik; baina zuzendaritza ezeze, lanen zamarik astunena ere, lekeitiarrak leporatzen ebala esan behar da.”

5

1934. urtean Lekeitioko elizako koruko lagunekin.



Zaletasunen artean, maite-maite izan zuen beti mendira joatea. 1935. urteko ibilaldi batean.




6

Makinatxu bat lan egin zuen (musika-lanak, Bizkaiako Batzar Nagusietako agirien itzulpena) harik eta hirugarren loraldia ezagutu arte. Jubilatu ondoren eta 1984. urtetik aurrera bere nobelen berrargitarazio eta hiru berrien plazaratzea ezagutu ditu. *Jaioko dira* (1984), *Txurio Txuria* (1986) eta *Iribarrea galtzen denean* (1987) dira hiru eleberri berriok. Oleri lanari ere ez dio hutsik egin eta, laguna gogoan, *Ez zaitez Gernikara joan*, *Lauaxeta* eman zuen inprentara.

Loraldi honekin batera, Autonomia Erkidegoko instituzioen onespena jaso zuen Erkiagak. 1986. urtean, Bizkaiko Aldundiaren saria eta 1988. urtean Eusko Jaurlaritzako Euskal Letretako Merezimenduzko saria eskaini zitzaizkion. Euskarari emaniko bizitza luzea 1993ko maiatzaren 31n itzali zen.

Gorbean, 1936. urtean lagun-taldean.



Mercedes Telleria bilbotarrarekin ezkondu zen.





Begoñako Andra Mariren Basilikan ezkondu ziren eta elizkizunak Jose Maria Arizmendiarieta lagun minak ospatu zituen.



Emaztea eta seme-alabekin: Esther, Txabi, Sara eta Eloisa.

Eusko Olerti Egunen oldarpean hasi zen Eusebio Erkiaga olerkariaren poemategia agertzen. Olerti egunera aurkezturiko poemak *Yakintza* aldizkarian iragartzeko ohitura zuen Aitzolek eta 1934. urtetik aurrerakoak txapelketara agerturiko beste poema batzuekin batera liburuan jarri zituen. Urte berean, eta, ziur aski, Lauaxetaren gidaritzapean, hasi zen Erkiagaren lankidetzan *Euzkerea* aldizkarian.

Euzkerea-n egin zuen lanak alde nabarmen bi izan ditu: lehen-lehenik joera lirikokoak agertuko ditu; aldizkarian gertatu zen aldaketaren ondoren, askoz ere poema ideologikoagoak agertuko ditu plazan.

Lauaxetak zabalduriko sinbolismoaren jarraitzaile den neurrian egin zaigu interesgarri Erkiaga. Sinbolismoak erein zituen gaiak altxatu egin zituen Erkiagak: maitasunaren mundu xalo, jori, ederraren tratamendu sotila; loreen metaforizazioak eta uretan agertzen den ilargiaren gaiak zer adierazia eman zioten Erkiagari.

8

Ausez, bere lana sinbolismoaren inguruetan geratzen da eta haren topikoak –maitasuna, metaforaren indarra, giroaren sotila– maite baditu ere, mugetan mogitu zela baieztatu dezakegu; jarraitzaileen jarraitzaile balitz moduan. Baina, hala ere, jaso

zuen sinbolismoaren tonu poetikoaren doinurik behinena.

Roberto Mielgok zuzen adierazi du Juan Ramón Jiménezen irakurketa berandu hasi zuela Erkiagak.

Yakintza-ko lana hasten duenean, honela agurtu zuen Aitzolek hango orrialdeetan:

“Azkenez Erkiaga’tar Eusebi aipatu dezadan. Olerkari gazteenakoetan auxen dugu lerdenean. Amaikatxo bertso sotil Erkiagari irakurri dizkiogu:...”

Lehiaketara bidalitako lan guztiek ez bazuten ere maila gorena lortzen, Erkiagaren estilo sotil horren agerbide dira. Erdi-mailako olerkaritzat zuen Aitzolek Erkiaga.




Eguna egunkarian idazleen argazkiak ateratzen zituzten noizik behin.

Hala ere, honen poesiak sinbolismoa parnasianismoarekin epeltzen bazuen ere, herrikoitasunak, bere nobeletan behin eta berriro azpimarratu den ezaugarriak, berebiziko indarra emango dio bere lanari. Sinbolismoak gaiaren eta tonuaren joeran egin du lan, herrikoitasunak poema eratzeko unean eta idazkera taiutzeko orduan.


Gerora eleberrietan agertuko duen moralismo kutsuak eta literaturaren gainetik jartzen duen ideologiak, argi utzi dute bere arrastoa Erkiagaren poesiaren lehen atalean.

Gerra ostean, etengabeko lanari eutsiz, hainbat aldizkaritan hartuko du esku Erkiagak: *Gernika*, *Olerti*, *Karmel...*, baina *Egan* aldizkari berrituan emango ditu argira bere poemarik ezagunenak. Alde eta zio desberdinengatik ezagunak gainera.

Planctus erako *Illobi izengabea* da bat-batean burura datorkiguna. Guda zibilean bizitza galdu zutenen aldeko eresi mingor eta sarkorra.



Augustin Zubikarai eta Manu Ziarsolo, *Abeletxe*.




1953. urtean Euskaltzaindiari zuzendutako gutuna urgazle izendatzeagaitik eskerrak emanez.

Hamabost silabatako pareadoetan idatzia, Erkiagak egoeratik gora egin du, giza-saminaren adierazpide bihurtu arte.

Piñondoan lerdeak malko geldia iduri; haren dizdiratzailea goiko eguzki zuri. Anai arteko gudua bukatuak zanean zauriak eta urratuak genituen muiñean. Gudu guztiak bait-dute gizodola lurrean.

Autobiografia, pentsakizuna eta ikuspegi zabala lotzen dituen poemak bertso luzean nahiko arnas hartu du, planctusaren erritmo ilun eta hausnarkorra lortzeko.

Piska bat lehenago, *Isil-ondoko olerkiak* deituriko sailean Erkiagak Jean Paul Sartrearen *ardi galduak* poema eman zuen argitara. Ondoren




Roberto Mielgok ikerketa burutu zuen Erkiagaren eleberrigintza aztergai hartuta.

egingo duen nobelagintzan nabarituko zaionez, poema honetan Eusebio Erkiagak erakutsi du begi zolia zuela modernitateak agertzen zituen arazoak, kasu honetan existentzialismoa, ikusi eta ulertzeko, baina haien aurrean bere betiko ikuspegi moralak agintzen zuen. Existenzialismoaren aurrean, adibidez, San Agustinen *Aitorpenak* jarri baititu:

Eta or dabiltz galdez
samin, Beti Larri,
euren buruak noruntz
begiraka jarri...
Adimen bazka arraitzat
ikus 'Aitorpenak'...

Bizitzaren azken aldian, 80ko hamarkada aurrera zihoala, *Ez zaitez Gernikara joan*, *Lauaxeta* poema luzea argitaratu zuen.



Yakintza aldizkarian argitaratutako poesia.



Egan, Olerti, Euzkerea

12 Euskal letragintzan Erkiagak egin duen lan sakon zabalean berebiziko tokia hartu dute bere sei nobelek. Edozein idazleri jarraipena eskatu ohi zaio bere lanak aurrerapidea izan dezan. Erkiaga ia berrogei urtetan aritu da lanean, kontakizuneko alorrean idazkera eta mundu ikuskera propioa lortu arte, eta hori gure historiak ezagutu duen arorik ilunenetan.



Lauaxeta soldadu jantzita.

HIRU ARO NAGUSI

Sei nobela idatzi eta argitaratu ditu Erkiagak. Idatzi eta argitaratu esan dugu beti ez datozelako bat idazteko garaia eta argitarazio urtea eta biak esanguratsuak dira bere joan-etorria marrazteko orduan.

Lehen arokoa dugu *Arranegi*, 1950. urtean idatzia eta 1958. urtean argitaratua. Bizkaiko Kultur Billeraren saria jaso zuen ohitura-eleberri deituriko honek.

Bigarren aroan hiru nobela idatzi zituen Erkiagak, baina bi besterik ez zituen argitaratu. *Araibar zalduna* (1962) nobelak 1958. urtean Euskaltzaindiak eraturiko Domingo Agirre saria irabazi zuen eta lau urte igaro zituen argia ikusi barik. Esanguratsua da, baina, lehena baino zortzi urte beranduagokoa dela.

Batetik Bestera (1962) eta *Txurio Txoria* 1963. urtean idatzitakoa eta izenburua aldatu eta moldaketak egin ondoren 1986. urtean argitaratuak dira hirukotea osatzen dutenak.

Hirugarren aroa 1984. urtean hasten da *Jaioko dira* nobela plazaratuz batera, aro eder bati hasiera emanez; 1985. urteak *Batetik Bestera* nobelaren bigarren argitarazioaren kaleratzea ikusi du; hurrengo urtean argitara eman zen *Txurio Txoria* isilune luzea urratuz; urte

berean Bizkaiko Diputazioaren Nobela saria irabazi zuen Erkiagak, eta 1987. urtean, 75 urteko sasoian genuela, *Irribarrea galtzen danean* bere azken nobela eman zuen plazara.

Hiru aro kronologiko, baina era berean sozioliterario ere bai. *Arranegi* argitaratzen dute 1960. urtetik hurbil euskal literaturaren susperraldia gertatu zenean. Garaikide ditu *Egan* aldizkariaren indartze- eta euskalduntze-prozesua; euskal literaturaren lehiaketen sorrera eta Jon Etxaidek ere bere lana argitaratzen hasten denean. Euskararen



1958ko *Egan* aldizkarian Mitxelenak argitaratu zuen *Arranegi* eleberriri buruzko kritika-artikuluua.

ARRANEGI, Eusebio Erkiaga. Itxaropena Argitaldaria (Kuliska sorta, 19-20), Zarautz, 1958.

Eleberri bat ezta egunoroko gauza euskal-letretan, are gutxiago Erkiaga bezalako euskal-idazle batek egindako eleberria.

Aitor dezadan, aurrenik, oitura-eleberri au zearo legezarrakoa dela. Eztu egileak bide berririk urratu nai izan, aski baitzuen zaarretan bere asmoetarako.

Argi eta garbi ageri da, edozein orrialdetan, egilearen "olerkari-suna" eta lirikarako ixuria. Esateko ezta liburu guztian lagun bat izik nabari: Lekeitio, atzo, gaurko ta betikoa, baiña batez ere egitararen aurtzaro-gaztetangoa.

Lekeitio'ko lur-itsasaldeak, lekeitiarren oiturak, nekeak eta jaiak... atzak berak dakar gogora Lekeitio'tik urruti gabe jaiotzen zena al-novelagille baten izen ospatsua. Ez ote da noraezko, egiteko an sartu ezkerro, *Kresala*-ren oroitzapenarekin borroka astea? gria esan, eta ezta gutxi, eztirudi Agirre'ren erraiñuak geiegi

gatu duenik Erkiaga, zerbait lagundu badio ere. Ondarrrik onda-

gorputzaldi hori ahul geratu da Autonomia Erkidegoak euskarari eta euskal literaturari eman dion bultzada ikusi ondoren. Bolada berri honetan ezagutu dute Eusebio Erkiagak eta bere lanek merezi duten balioztapena, bai nobela berrien argitarazioaren bidez, bai nobela zaharren berreskuratzearen bidez, eta bai pertsonari eta literaturari egin zitzaizkien ikerketa eta lanen bidez. Hauek eta berrirakurketak baitira idazlearen bizitzaren seinale.

NOBELAREN NORABIDEAK


Ohitura-eleberria deitu zuen Erkiagak *Arranegi* Lekeitioko herriari eskainiriko lana. Helburua, noiz edo noiz azaldu duenez, sorlekuari eta arrantzaleen bizitzari gorazarre egitea izan omen zen.

Bat-batean erkatu zen nobela hori Txomin Agirrerekin. Honek Arranondo izan bazuen kontagai, Erkiagak Arranegi jarriko digu begi bistan.

Araibar zalduna




Batetik bestera



Izenaz gain, badira mila dizdira bien artean. “Ekaitza” kapitulua idazle biengan agertuko da; herriko Timuti Belarrik eta Mikela Begik oroimenera dakartzate Tramana eta Brix; arrantzaleen bizitzak bietan dira nobelaren eusle eta agerbide. Baina Erkiagak ez zuen *Kresala* soilik kontuan hartu eta *Garoa*-ko izpiak agertu ditu lekeitiarrak emakumeen tratamenduan. Ohitura-nobelen zantzu nabariak gorde baditu –denboraren tratamenduan herriko jaiekin hasiz eta bukatuz nobela; pertsonaien idilioa kontakizunaren oinarri gisa hartuz

Txurio txoria



baina ekintzetan bigarren maila batera jeitsiz–, nobela-idaztankerak nobela liriko edo modernistaren zertzeladak azaleratu ditu. Hona hemen Erkiagaren iritzia:

“Nobela baino areago prosa lirikua dalako, neure erriarenganako maite agerpena eta gure arrantzaleen gorlpena [egin ditut]”.


Jaioko dira



Txomin Agirrek hizketaldiaren eredia oratorian aurkitu bazuen, Erkiagak modernismora jo du.

Araibar zalduna eta Batetik Bestera nobelek beste norabide bat hartu dute. Jon Etxaidek *Joanak joan* nobelan egin zuen gisan, Erkiagak maite-pulsioaren azterketa hasi du *Araibar zalduna*-rekin Iñaki Sarriugartek dioen legez,

Irribarrea galtzen denean



“Manu Araibar zaldun andrazalearen eskutik, hiri-giro nahasian sartzten gaitu, gizakien gogo-grinak eta jokabideak azalduz;...”

Giroa hiritartu egin da, kaleratu –Sarriugartek nobela uritarra dela gehitu du, eta ekintza kalean gertatzen dela ohartu Igone Etxebarriak–, begirada konplexoagotu, garbitu, zehatzago bihurtu –Roberto Mielgok bikain azaldu du nola hurbiltzen den Erkiaga nobela errealistarantz–. Baina, beste aldean, ideologizazio-prozesuak areagotu ditu Erkiagak. Irakatsi-nahia, ikuspegi morala eman nahia nabari zaio

1988. urtean Eusko Jaurlaritzak Euskal Letretako Merezimenduzko saria eskaini zion.




lekeitiarrari. Gaizki egina ordaindu egin ohi da. *Batetik Bestera*-ko Nikanor protagonistaren ibilerak kontatu ondoren, pertsonaiaren gainbehera azaldu du, anarkismoa ezagutu ondoren atxilotu eta gaisoz bakarrean hiltzen baita pertsonaia. Maitasun-pulsioaren garrantzia azpimarratzeko leinuaren segida, edo antzutasunaren gaia ardatz bihurtu du Erkiagak; antzu da Manu Araibarren ezkontza, antzuak *Irriparrea galtzen denean* nobelako Jonen eta Poliseneren egoerak.

Jaioko dira-n, ordea, bestelakoa da egoera. Emaztetzat pertsona egokia

aukeratuz gero, leinua ez da etengo eta, Xenpelar gogoratuz, “Jaioko dira berriyak”. Antzutasunak, ordea, gizartea bera ere hondoratzen du: “Iribarrea galtzen danean gizartea da galtzaile”.

Mezu ideologiko horren inguruan, nobelaren hari-mataza moteldu egin ohi da. Sarriugartek eta Etxebarriak azpimarratu dutenez, nobelak astiro hasten dira, motelak dira hasieran, eta erdi aldean hartzen dute gaiaren segida, bukaerek –bere ezkutuko aiten eta amen agerpenarekin, seme eta alaba galduen agerpenarekin– foiletin nobela joera hartu dute. *Jaioko dira* nobelan pertsonaien moldapena harrigarria da. Inguruaren eta



Rufo Atxurra txikitako eta betiko lagunarekin Lekeitioko Udalak antolatutako omenaldi-egunean.

18 egoeraren, gudako sufrikario guztien kontaktan maisu agertu bazaigu Erkiaga, maila bi sortu ditu: egoera orokorra, alde batetik; eta pertsonaia nagusiak, Sancho eta Maribel bere aldetik, amodio kontuetan, egunerokotasunean bizi duten tragediaren berririk ez balute bezala.

Beste esku bat erakutsi du Erkiagak, pertsonaien hizkeraren eraketan eta bere idaztanceran. Elkarrizketez hornitu ditu bere nobelak eta horiek dira nobelen ardatz eta enbor. Maiz elkarrizketek eratzen dute nobelek klimaxera daramaten bidea.

HIZKERAREN ORFEBRE

Orfebre baten sotiltasun eta zehaztasunez lantzen du Erkiagak bere hizkera literarioa. Iritzi zabaldua da bere aztertzaileen artean ezaugarri hau. Hasi Koldo Mitxelenarengandik eta Lino Akesolorenganaino, lumaz luma jarraitu duen ezaugarria da hori. Honela Mitxelenak:

“Gainerako euskaldunontzat ain berezia duen Bizkai-euskeraz, Lekeitioko itz-esaera jatorretan blei (ut dicunt) ageri den euskeraz, azaldu digu Erkiagak Lekeitioren edertasuna. Alde onetatik ene ustez, eztio batere zorrik Domingo Agirreri, eziña badirudi ere, ez jatortasunean ez aberastasunean.”




Eguna egunkariko idazle eta laguntzaileei egindako omenaldian.

Maisuaren iritzi honen bidetik etorri dira hurkoak. Lirikotasunak beta eman dio Erkiagari hizkera eta esaldia maisuki lantzeko, astiro eta patxadaz, esaldia urrunetik begiratu eta haren ezpalak zuritzeko, esku onez erretorikan burila sartzeko, eta behar denean, hitzaren jarioa sinonimiaz eta adjetibo pilaketaz osatzeko, eta, behar denean ere, esaldiaren anbiguotasunean sakontzeko umorea landuz, edo elkarrizketa biziz pertsonaien taiukera osatzeko.

Deskripzioetan izenlagunen erreskada maite badu ere, joskerak zuzen begiratzen du zentzua. Ezin esan liteke esaldi laburra ez duenik maite, sarri jotzen baitu errefracuen moduko esamoldeetara zentzua argituz eta garbituz.

Erkiaga beti zoli agertzen da erritmoaren kinuan, eta esaldiak belarran sortzen duen eraginean. Lekeitiarraren lana astiro eta gogotsu aztertu duen Iñaki Sarriugartek hizkera poetikoa, ironia, konparaketarako esku jaioa, paralelotasunak egiteko kera, sinonimia-zaletasuna aitortzen dizkio idazleak erakusten duen lirikotasunari.



Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako omenaldian (1992) Don Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzaileak egin zuen hitzaldia.

Lekeitioko Kultur Etxeari bere izena jarri zioten egunekoak.



Iritzi zabaldua da, orobat, herrikoitasunari begira idazten zuela Erkiagak. Igone Etxebarriak, adibidez, poetikotasunean eta herrikoitasunean jartzen du nobelagilearen idazkeraren oinarria. Herrikoitasuna ezin ukatu zaio Erkiagari: nabariak dira herri-lirikaren zantzuak bere kontakizunetan. Baina, zehaztu beharreko baieztapena da herrikoitasunarena; hain zuzen ere, oso erregistro goratua erabili nahi duelako idazleak. Modernitatearen

hitzen sarreraz batera, klasikoen ezagutza bipila aitortu behar zaio hizkuntzaren baliapideen barnean tentuz lan egin duen idazle handiari.

Karmel aldizkariak monografikoa atera zuen bere lanen inguruan.



Etxeko txokoan lanari lotuta egon ohi zen legez.

*Hizkuntza Politikarako Sailordetzak liburuxka honen material
grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Eusebio Erkiagaren familia*
- *Antton Segura*
- *Euskaltzaindia*
- *Bizkaiko Foru Aldundiko Biblioteka*
- *Sancho el Sabio Fundazioa*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga
Argitaraldia: 1.a, 1997ko abendua
Ale-kopurua: 2.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa eta Inprimatzea: EVAGRAF, S. Coop.
Alibarra, 64 - 01080 Vitoria-Gasteiz
ISBNa: 84-457-1212-8 (obra osoa)
ISBNa: 84-457-1213-6
Legezko Gordailua: VI - 620 / 97

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística